

# Trapezistak



**NORA SALBOTX ALEGRIA**  
MAISTRA

“**F**rantzian frantsesa! Trapezistak!!”. Gure ele barbaroak tarteko, mugaz bi aldeetara ere, izan gintezke, berdin, emazte bizarduna ala gasolina hurrupa batzuen alde ahotik garrak botatzen dituen su-irenslea, laban jaurtitzailerearen giza-itua, sarerik gabeko funambulista, zazpi pilotadun malabarista, eta, zergatik ez, mundua den zirkuaren lur puxketa honetan, demagun Bizkarsoron, pailazo, eta separatista.

Separatistatza izanen ote zituzten Uztarrozeko eskolako neskatokak, neketan ikasten zutenak espainolez leitzen eta eskribitzen? Izan ere, maistra elebidunari euskaraz egin zezan galdegiten zioten Frantziako Errepublikaren minus 14. urtean, *de France et de Navarre*-ko Luis XVI.aren burua oraino ttennte zelarrik. 80 urte geroago ere teman ziren Erronkariko agintariak, Iruñera igorritako eskutitzean ageri denez: nesken eskolarako maistra euskalduna behar zutela eta ez zezatela bertze gisakorik igorri harat, faborez. Oihartzunen bat eginen dizu, irakurle, hezkuntzako probintzia-batzordearen erantzunak: delako lanpostu horretarako, lege, arautegi eta agindu orokorrek ez zutela euskarazko hizkuntza eskakizuna exijitzen ahal, fini.

XIX. mendeko hasmenta horretan, Badoztainen, kontent zen apezka. Izan ere, dozena eta erdi urteren bueltan, maisu erdaldun porrokatu batek, ja-



PAULA ESTÉVEZ

kitera zein gisako arte eta zigor erabilita, erdietsia baitzuen herriko karriketan ordura arte nagusi zen euskara bezainbertze gaztelania aditu zedin. Ibai Atutxak aski ongi azalduta utzi digun diferentzien produkzioaren kontu horrengatik izanzen zen akaso, edota oligarka, burges eta eliz jendeen euskararen irudi basa eta primitiboaren garaiko besarkatzea tarteko. Betiere, bere parte egiteko nahikerian izanzen zen hango erretorea ere, segur.

Eta, Atutxak zabalduko barbarizazioen etsiaren xendrari segika, XX. mendea aitzinerat poliki joana zelarrik, gogoratu nahiko ez nukeen, eta aldi berean edozein izan zitekeen, herri bateko eskolako umiliazioen kapitulua hemen. Maisu zuri eta zibilizatu bat hantxe, diferentzia emantzipatzaileko potentziala duen guztia zafratzen, izan hizkuntza, klasea, arraza edota landatartasuna. Iru-dikatu, beraz, eskola frankista bat. Imajinatu ikasmahai saldo bat lerro-lerro eta

tranpaldotik gorroto estatal-inperiala kaligrafia ederrez ematen gizona: batek duela “adimen gibelamendu nabarmena” gaztelania apenas konprenitzen duelako. Hori dela “uzkurra eta lotsatia bordaria izatearen ondorioz”. Hau “*kaseroegia* eta adimen eta irudimenez eskasa”, “zikina” hangoa, “zatar jantzia” bertze hura. Gehitu orain horri guztiari ijitoa ere bazarela eta leitu, horra: “Alferra, interesik batere ez duena, hartaz kezkatzen ez diren guraso axolagabeak dituen. Askeegia”.

Lehenengo batean *Bizkarsoro* ikustetik heldu ginen aspaldiko laguna dudan M. eta biok. Bizkarsorotik Bizkarsorora autoan joaki ginen, etxera bueltan. Emanaldian zen Josu Martinezen hitzek eragindako inarrosaldia gorputzean hala moduz kokatu nahian nindoan: “Desobiratu beharko dugu euskararen errepresioa, Memoriaren Legean frankismoarenarekin egin den gisa berean”. Hartan bota zuen M.-k:

–Zernahi aldiz eskribitu zuen gure amak eskolan *no hablaré más en vasco*. Aldiro zigortzen omen zuten! Orain penatuta dabil kaier horiek gorde ez izanaz. Lastima!

Eta orduantxe jakin nuen bere ama ere hala ibilia zela. Desobiratze bat, hara.

Gure ele barbaroak tarteko, mugaz bi aldeetara ere, izan gintezke, berdin, zartailuz bezatutako lehoia, bala-jendea, ganibet-irenslea, eta, zergatik ez, ilusionista, mago, eta separatista. ●